

Aurkibidea

HITZAURREA	7
I. NAZIONALISMO ESPAINOLA	11
1. Nazionalismo espainiarrari buruzko zenbait ohar: Ortega y Gasset eta Azaña [1988]	13
2. Espainia eta <i>mairuak</i> : gorrotoaren kontakizuna [1994].....	25
3. Ama eta aberria ezin dira aukeratu [2013].....	41
4. Menéndez Pidal eta Espainia metafisikoa [2020]	45
II. ETA	55
1. Mitoaren funtzio politikoaz: Sorel-en exegesi bat: <i>Bortxari buruzko hausnarketak</i> (1908) [1991]	57
2. ETari begira Kronstadt-etik: Emilio Lopez Adan-en <i>Biolentzia politikoaren memoriak</i> (2014) [2015].....	65
3. Borroka armatuaren epika: Piarres Larzabal-en <i>Nere Mendixkatik: Apez bat ETako gudariez mintzo</i> (1999) [2017].....	71
III. EUSKAL INTELEKTUALAK	79
1. Txillardegi, Kundera etorri duk hitaz galdezka [2004].....	81
2. Euskal Unibertsitatea: Jokin Zaitegi eta Koldo Mitxelena [2014].....	89
3. Txillardegi eta Orixe, euskara batua zertan den: euskara urbanoa [2018].....	95
IV. EUSKARAREN SALBAMENDUA	105
1. Euskara, nazionalismoaren ahulezia historikoa? [1993].....	107
2. Olentzero, non zaude? Gogoeta bat Iruña-Veleiari buruz [2006]	119
3. <i>San Ignazioaren martxa</i> -ren aroa. Zirriborroa euskara batuaren historia intelektualaz [2018]	135
4. Joxe Azurmendi, Arantzazuko pentsalaria [2020]	147

V. AZKEN HITZA..... 161

1. Iraultza zientifiko bat behar dugu [2015]..... 163

Hitzaurrea

Badira bi urte lagun on batek iradoki zidala liburu berri bat argitaratzea han eta hemen sakabanatuta ditudan testuekin bilduma bat osatuz. Eskertu nion oharra, baina urtebete lanpetuta ibili nintzen beste hamaika beharlekutan eta ezin izan nuen ezer egin. Duela hilabete batzuk, ordea, berriz ere heldu nion gaiari eta oinarrizko aurkibide bat osatu nuen. Testuak biltzeko orduan, jakina, guztien kopia digitalak eskuratzea eta formatu bakarrera pasatzea zen lehen erronka. Egin ahala ideiak argituz joan ziren, hasierako aurkibideari beste bizpahiru testu gehitu nizkion eta liburuaren taxua berez nabarmendu zitzaidan buruan. Emaitza esku artean duzuen da.

Testu zaharrena duela hogeita hamahiru urte idatzia da, artean Historiako lizentziaren bosgarren kurtsoan nintzela, Udako Euskal Unibertsitatearen Iruñeko ikastaroetan aurkezteko. Memoriak ez badit hutsik egiten ezinezkoa izan zen orduan, aurreko egunean Larraonako ikastetxean sortu zen salmonelosiak bete-bete harrapatu baininduen beste ehun bat lagunekin batera, eta hiruzpalau egun eman nituen ohean hantxe bertan, ikaskideek zaintzen nindutela. Esaten zuen Marxek hainbat gertakari historiko bi aldiz errepikatzen direla, lehenean tragedia gisa, bigarrenen komedia huts bezala, ordea. Nire kasuan apur bat alderantziz da: Larraonako ikastaroko salmonelosi ospetsuak ehun lagunetik gora kolpatu bazituen ere, hiruzpalau baino ez zuten ospitaleratu beharrik izan, eta handik pare bat egunera alta hartuta zeuden; barre ederrak egin izan ditugu beti horren kontura. Lerro hauek idazteko orduan, ordea, herritar guztiok hilabete bat daramagu etxetik irten ezinik, koronabirusaren pandemia dela-eta; etxeko guztiok oraingoz osasuntsu bagaude ere, ospitaleetan ehunka lagun hila da honezkero. Enfin, Historia beti dago nahaste-borrastez eta paradoxaz betea, baita gauzarik xumeenetan ere.

Testu hura, udan aurkeztu beharrekoa, udazkenean aurkeztu nuen Donostian eta, memoriak ez badit hutsik egiten, baita Bilbon ere, II. Mundu Biltzarrean. Tesian pentsatzen nuen orduan, baina lanean hasi behar izan nuen berehala eta nire tesi asmoak luzatuz eta luzatuz joan ziren hamaika urtez. Hau ere ez da istorio originala: nire inguruan behintzat, beti izan dira tesia egin ahal izan dutenak unibertsitatearen egituren barruan, beken edo bestelako postuen laguntzaz, eta beste batzuk, ordea, nik bezala, bestelako lan batzuekin konbinatu behar izan dugunok. Gaur egun gero eta arruntagoa da karrera amaitu eta lauzpabost urtetan tesi bat burutzea, beka baten laguntzaz, baina orduan gutxitan gertatzen zen horrela eta, ondorioz, tesiak luzatu eta luzatu egiten ziren, bereziki Letretan, non beti suposatzen izan den tesiak zinezko

mugarri bat izan behar duela zure curriculumean. Nirea hamaika urtez luzatu zen eta, benetan diotsuet, leporaino amaitu nuen, erabat agortuta, ahituta, gaiarekin nazkatuta. Zaila da *lasterketa* akademikoa, lana, soldata eta etxeko ardurak, dena batera aurrera ateratzea. Horretan ere ez dut uste nire kasua bakana denik, areago, horrelako kasuak gaur egun ere gertatzen direla esango nuke nahiz eta, ziur aski, lehen baino gutxiago, unibertsitatea asko aldatu delako eta doktoregaiaren katramilak beste batzuk izaten direlako, ez errazagoak, hala ere. Baina gaur egun ere badira nirearen modukoak.

Liburu honen aurkibidea, beharbada, egoera horren ondorio eta erakusgarria da. Oro har, testu zaharrenak *akademikoenak* dira eta zerikusi handiagoa dute nire orduko tesiaren gaiarekin, hots, nazionalismo espainola. Tesia amaitu ondoren, ordea, gauzak lasaiago hartu nituen: euskal kulturari arreta handiagoa eskaintzen hasi nintzen eta testuak modu lasaiagoan idazten, hots, mundu akademikoaren kezka obsesiboa izaten den iturrien arazoari (artikuluen bibliografietan eta oinoharretan agertzen dena) arreta txikiagoa emanez. Hitz batez, irakurle arruntaren gustu eta beharretan pentsatzen, eta ez ebaluatzaile akademikoen jarraibide-tauletan. Ez dakit, ondorioz, testuak hobeak edo kaxkarragoak diren, baina estiloa aldatzen da, baita intentzioa ere, eta normalki ausartago agertzen naiz planteamenduetan eta ondorioetan. Izan ere, mundu akademikoa erro-errotik kontserbadorea da, *berriztapena* goraki aldarrikatzen duen arren. Nik neuk behintzat aspaldi ikasi nuen guru akademikoen leloak eta baieztapen anpurusak biziki kontuz kontsideratu beharrekoak direla. *Laineza*, esaten zuten bai Cervantesek zein Lazkao Txikik (hitz berbera erabiliz gainera), eta ez dut uste aholku hobeagorik dagoenik tesia amaitu ondoren zerbait idazten segitu nahi duen doktore berriarentzat.

Lau ataletan banatu dut liburua, testuen gaien arabera. Laurak daude estuki lotuak elkarren artean, zeren era berean gai beraren sail desberdinak dira. Gai nagusi hori, jakina, nazionalismoa da, edo abertzaletasuna beste batzuk esango luketen bezala. Gauza bera ote da hitz bien bidez adierazten dena? Bai eta ez. Zalantzak izan ditut liburu honen izenburuan bata ala bestea paratzeko orduan; azkenean, edonorakoena jarri dut, hots, gure artean (hemendik kanpo ez bezala) adierarik zabalena eta ez-markatuena duena. Kasu, hala ere! Liburu honetan ez naiz batere arduratzen esplikatzeko *zer den* nazionalismoa; bestelakoa da nire asmoa, ordea: nazionalismo zehatz hau, hori edo hura *nolakoa den* zehaztea. Hori da, dudarik gabe, liburu honen gakoa.

Areago, nire uste apala bezain sendoa da nazionalismoari buruz diharduten liburu akademiko asko eta askoren akatsa: nazionalismoa bezain zabala eta askotarikoa den fenomeno sozial bat teoria bakar baten arabera esplikatu nahi izatea lelokeria bat da funtsean. Kolpe huts bat. Gidatzen dituen oinarrizko galdera gaizki eginda dago, hala nola errakuntza bat den erlijioa zer den, bere osoan, teoria bakar

baten arabera esplikatu nahi izatea. Aitzitik, egokiagoa da, eraginkorragoa, erlijio hau, hori edo hura, leku eta garai zehatz honetan, horretan edo hartan, esplikatzen saiatzea. Apalak izan gaitetzen: Newtonen edo Einsteinen asmoak eta moldeak ez dira oso praktikoak gizarte-ikerikuntzan, alde batera utzirik bi jaun *argidortar* horiek ere ez zutela inoiz erdietsi *guztia* teoria bakar baten arabera azaltzea. Bego.

Ondorioz, liburuaren lehen bi ataletan bi nazionalismo mota aztertu nahi izan dut, bata espainola, bestea euskalduna. Bataren zein bestearen kasuan, ez nazionalismo espainola edo euskalduna bere osoan, baizik eta haren bi adar konkreturen kasuan: nazionalismo espainol progresista eta euskal nazionalismo iraultzailea. Eta bakoitzaren barrutian ere sailkapen berriak egin daitezke, zehaztapenak, eta abar, baina testu bakoitza bere aldetik hartuta uste dut nahiko argibide ematen duela bere intentzioaz.

Hirugarren eta laugarren ataletan saiatu naiz euskal kulturaren arazo espezifikoei sakontzen. Izan ere, gauza jakina da nazionalismoa ez dela, inola ere, fenomeno kultural hutsa, baina nik neuk beti izan dut euskal kulturarekiko jaiera, eta horixe da ondorioa. Kasu gehienetan euskal intelektualen ekarpenak haztatzen saiatu naiz, baina beti euskal gizartearen arazoekin harremanetan jarrita. Kultura, gizartea eta euskara, horra nire ahaleginak gidatu dituen oinarrizko ekuazioa. Kasu batzuetan intelektual zehatz baten azterketa hartu dut jopuntutzat (Orixe, Jokin Zaitegi, Mitxelena edo Txillardegia) eta beste batzuetan, ordea, Historia Intelektual orokor bat marraztu nahi izan dut Euskal Herriarentzat. Erreferentzia solteak alde batera utzita, beti ibili naiz XX. mendean oro har, bere bigarren erdian bereziki. Hots, gaurkotasunezko gaiak dira, gaurkotasun hori termino historikoetan hartuta, jakina.

Bosgarren atal bat ere zabaldu dut, laburra eta zehatza, eta horretan azpimarratu nahi izan dut nire ustez une honetan euskarari dagokionez euskaldunok dugun arazo nagusia, hots, mende berriarekin batera, gutxi gorabehera, aro bat amaitu dela eta beste bat hasi, eta oraingoz ez dugula asmatu gure arazoei nola ekin aro berri honetan sortu zaizkigun baldintza berrietan. Hori irudikatzeko *paradigma-aldaketaren* kontzeptuaz baliatu naiz: metafora bat da, funtsean, bere horretan inolako baliorik ez duena, baina nire ustez praktikoa izan daitekeena zertaz ari garen eta zer egin beharko genukeen zehazteko orduan.

Argibide labur batzuk liburuaren edizioari buruz. Testuak jatorrizko bertsiotan idatzi bezala utzi dira, edukizko aldaketarik edo eguneratzerik gabe. Forma aldeko aldaketak ere gutxi izan dira: han eta hemen errakuntza nabarmenenen edo daturen baten zuzenketa eta, lauzpabost lekutan (ez gehiago) argibide laburren bat oinoharretan, ia beti *Nota Bene* (*N.B.*) formularen bidez, eta besterik ez.

Lau atalen barruan testuak antzinasunaren arabera ordenatu dira. Hain zuzen ere, kasu bakoitzean azpimarratu nahi izan dut jatorrizko testuaren data, bertan egiten diren kontsiderazioak askotan lotuta egoten direlako une zehatz horretako egoerari. Onerako edo txarrerako, apika, nire oinarritzko iritziak ez dira aldatu lehen testua idatzi nuenetik hona, baina garrantzitsua deritzot lehen argitalpenaren data zehazteari (normalki erredakziotik oso hurbil egoten dena). Historia ikasi nuen unibertsitatean eta, horregatik apika, beti eman izan diot garrantzi handia datak zehazteari. Horra.

Hortaz gain, jakina, euskararen aldetik orrazketa orokorra egin da Euskaltzaindiaren arau gero eta zehatzagoen arabera. Ildo horretan, biziki garrantzitsua iruditzen zait gure erakunde kultural gorenaren arauak errespetatzea eta betetzea, hil ala biziko kontua baita euskal kulturaren garapenerako. Baina mundu honetan inoiz ez da komeni gauzak bere onetik ateratzea eta, ondorioz, egoki deritzot inoiz edo beste intsumisio txiki eta kontrolatu batzuk agertzeari; nire kasuan, adibidez, *Ernazimentu* idatzi ohi dut beti, berariaz eta jakinaren gainean (eta ez *Errenazimentu*) edo *aitasantu* (dena batera, eta ez *Aita Santu*), eta beste antzekoren bat, orain gogoan ez dudana. Espero dut nire bekatu txiki hauek ez dutela inoren begietan heresia gradua hartuko eta, beraz, penitentzia erraxen bat aski izango dela garbitzeko. Damurik ez dut, ordea.

Azken ohar bat izenburuari buruz. Zati nagusia gorago argiturik ere, esankizun gelditu da zergatik erantsi diodan azpiizenburu bat, hain esplizitua. Argi esango dut: bihozkada bat izan da.

Badute *Argia* aldizkariko lagunek lelo bat beren mendeurrenaren harira sortua ni bereziki hunkitu ninduen: *ez gara neutralak*. Ez dakit guztiz bat natorren Gorka Bereziartuak horren harira esaten duen guztiarekin¹ baina, nire gaztean, laster izango dira berrogei urte aldizkari horretako harpidedun egin nintzenetik, hots, besteak beste urtero-urtero kuota ordaintzen eta astero-astero aldizkaria irakurtzen, eta lelo hori asko gustatu zitzaidan. Eta hori irakurri eta nire baitan pentsatu nuen: ñio! Batzuetan gauzak diren bezala esan behar dira, itzulingururik gabe!

Eta orduan gogoratu nuen Arturo Kanpion zenak bere liburu askotan azpiizenburu bezala jartzen zuela *Euskalherriaren alde*. Bada, nik ere beste horrenbeste egin dezaket, oraingo honetan behintzat.

Zeren esku artean duzun liburu hau, irakurle, apur bat Arturo Kanpionen espirituan idatzia da funtsean: egia historikoari lotu nahiz baina, baita ere, Euskal Herriaren alde.

Gasteiz, 2020ko apirila

1. Gorka Bereziartua Mitxelena, *Ez gara neutralak*, Argia, 2019.